



Gaitasun
digitaletan
prestakuntza

5

Arazoak konpontzea







Gaitasun
digitaletan
prestakuntza



Arazoak
Konpontzea

B2 maila





AURKIBIDEA

5.1. ARAZO TEKNIKOAK KONPONTZEA

- [*Konexio mugikorra partekatzeko beste modu batzuk*](#)
- [*Ahots-morroiekin sortutako arazoetarako konponbideak*](#)

5.2. BEHAR ETA ERANTZUN TEKNOLOGIKOAK IDENTIFIKATZEA

- [*Windows eta macOS sisteman erabilerraztasuna konfiguratzeko aukerak*](#)
- [*Androiden eta iOSen erabilerraztasuna konfiguratzeko aukerak*](#)


5.3. TEKNOLOGIA DIGITALAREN SORMENEZKO ERABILERA

- [*Ekintzailletza korporatiboa*](#)
- [*Ideiak sortzeko SCAMPER metodoa*](#)

5.4. GAITASUN DIGIALETAN HUTSUNEAK IDENTIFIKATZEA

- [*LinkedIn Learning*](#)






DigitAll

Arazoak
konpontzea

5.1

ARAZO TEKNIKOAK KONPONTZEA





Arazoak
kopontzea

B2 maila 5.1 Arazo teknikoak
kopontzea

Konexio mugikorra partekatzeko beste modu batzuk





Konexio mugikorra partekatzeko beste modu batzuk

Konexio mugikorra partekatzea


Duela urte batzuetatik hona, Interneten erabilerak nabarmen egin du gora. *We are social* eta *Meltwater* taldeek egindako *Digital 2024* txostenaren arabera, **munduko biztanleriaren % 66k baino zertxobait gehiagok erabiltzen du Internet.**

OHARRA

Interneten nabigatzen emandako orduak

Digital 2024 txostenaren arabera, mundu osoko 5 bilioi pertsonak baino gehiagok erabiltzen dute Internet, eta egunean batez beste 6 ordu eta 40 minutu ematen ditu pertsona bakoitzak Internetekin lotutako jardueretan, hala nola nabigatzen, informazioa bilatzen, beste pertsona batzuekin komunikatzen edo lineako edukia ikusten.

Digital 2024 - We Are Social Spain. [e.digital2024.com](https://www.digital2024.com)



Interneteko erabiltzaile guztietatik, **guztiak ez dute nabigatzen gailu berberen medioz.** % 96 inguru telefono mugikorra usatuz sartzen da Internetera, eta % 61,8, berriz, ordenagailutik.

Ildo horretan, **egoera batzuetan Interneterako sarbidea konplikatu egiten da, zenbait arazo direla medio,** hala nola konexio motela izatea edo duguna jarduera zehatzetarako behar adinakoa ez izatea, edo are inolako sarbiderik ez izatea. Halako kasuetan, **baliteke gailuen arteko konexio mugikorra partekatzeko aukera egotea (*tethering* ere esaten zaio jarduera horri).** Funtzio horri esker, **beste telefono, tableta edo ordenagailu bat Internetera konekta daiteke telefono mugikor batean eskuragarri dauden datu mugikorren bidez.** Gaur egun, **telefono gehienek Bluetooth, USB edo Wifi bitarteko sarbide-puntu bidez ahalbidetzen dute funtzio hori.**

Funtzio hori erabilgarria da hainbat egoeratarako; esaterako, baliteke sakelako telefonoak beste gailu batek baino Internet konexio hobea izatea edo, besterik gabe, mugikorrak Interneterako sarbidea duelako eta beste gailuak, ordea, ez.

Horregatik, dokumentu honetan nola iOS gailuetan hala Android gailuetan konexio mugikorra partekatzeko dauden aukerei buruz hitz egingo da. Arreta Bluetooth eta USB bidezko partekatzean jartzen da, kontuan izateaz gain ekintza-botoiak eta izenak apur bat desberdinak izan daitezkeela telefono-ereduaren edo sistema eragilearen bertsioaren arabera.



NOLA GAITU WIFI-SARE BAT IOS SISTEMA ERAGILEKO SARBIDE-PUNTU MUGIKOR BATEKIN

iOSeko sarbide-puntu mugikor bat sortzeko jarraitu beharreko prozesua zehazten da urratsez urrats, baita sarbide-puntura konektatzeko, hortik deskonektatzeko eta hartarako izena eta pasahitza aldatzeko prozesua ere.

e.digitall.org.es/A5C51B2V03



NOLA GAITU WIFI-SARE BAT ANDROIDEN SARBIDE-PUNTU MUGIKOR BATEKIN

Androideko sarbide-puntu mugikor bat sortzeko jarraitu beharreko prozesua zehazten da urratsez urrats, baita sarbide-puntura konektatzeko, hortik deskonektatzeko eta hartarako izena eta pasahitza aldatzeko prozesua ere.

e.digitall.org.es/A5C51B2V04

Bluetooth bidezko konexio mugikorra partekatzea

Bluetooth teknologia ezagunen eta erabilgarrienetako bat da munduan, eta **gailuak elkarrekin erraz konektatzeko balio du. Gailu teknologiko askotan dago sartuta**, hala nola bozgorailuetan, hari gabeko entzungailuetan eta, jakina, telefono mugikorretan.

Horri dagokionez, Bluetooth **hainbat konexiotan erabiltzen da**: bozgorailuak telebistan konektatzea, kotsola baten aginteak konektatzea edo fitxategiak eta datuak gailu batetik bestera transferitzea, besteak beste.

Haatik, dagokigun kasuan, aplikazio ugarietako bat nabarmendu behar da ezinbestean: **konexio mugikorra Bluetooth bidez partekatzea**.

⚠ ADI

Kontuan hartu...

Internet konexioa Bluetooth bidez telefono mugikor batetik beste gailu batera partekatzeke, beharrezkoa da bi gailuek halako konexioa izatea eta aktibatuta edukitzea.

Zer da tethering eta zertarako balio du? e.digitall.org.es/tethering



Bluetooth bidezko *tethering*ak konexio egonkorra


ahalbidetzen du, eta Wifi eremu baten bidezko konexioa partekatzean gastatutakoa baino **txikiagoa da bateriakontsumoa**. Alabaina, Wifi sarerik ez dagoeneko edo kable bidezko konexioa posible ez deneko egoeretarako oso aukera erabilgarria bada ere, **transferentzia-tasa txikiagoa da** eta **konexiorako sarbidea gailu baten bidez** soilik ahalbidetzen du.

Jarraian, iOS eta Android sistemetako telefonoetan Bluetooth bidez *tethering*a aktibatzeke eman beharreko pausoak zehazten dira.

iOS

iOS gailuen kasuan, lehenik eta behin "**Sarbide-puntu pertsonala**" pantailara sartu behar da. Horretarako, iPhoneko **ezarpenetara** sartu behar da, eta, hortik, "Sarbide-puntu pertsonala" aukerara (1. irudia).

Behin pantaila horretan gaudela, funtsezkoa da "**Besteei konektatzen uztea**" aukera aktibatzea (2. irudia), konexio mugikorra partekatzeko aukerak eta horretarako egin beharreko urratsak agertuko baitira.



1. irudia. "Sarbide-puntu pertsonala iPhonean". Geuk egina.



2. irudia. "Besteei iPhonean konektatzen uztea". Geuk egina.



Bluetooth bidezko konexioaren kasuan, eta Android telefonoetan gertatzen den bezala, beharrezkoa da **iPhonea** konexioa partekatuko zaion **gailuarekin lotzea**. Estekatu ondoren, iPhonea beste gailura konektatu behar da, eta beste gailu haren sare-aukerak konfiguratu, konexioa arrakastaz egiteko.

Android

Lehenik eta behin, **telefono mugikorra beste gailuarekin lotu behar da Bluetooth bidez**, eta horren ondoren, **beste gailuaren sare-konexioa konfiguratu**.


Horren ondorengo urratsa **telefono mugikorrean konexioa Bluetooth bidez partekatzeko aukera aktibatzea da**.

Horretarako, lehenik eta behin, jakinarazpen-panela telefonoaren pantailaren goiko aldetik lerratu behar da, "**Sarbide-puntua**" aukera bilatu eta haren ikonoa sakatu, sarbidea **aktibatzeko** (3. irudia).

Aktibatu ondoren, ikonoa sakatuta eduki behar da "**Sarbide-puntu eramangarria**" pantaila irekitzeko. Hemen gaudela, "**Bluetooth ainguraketa**" aukera aktibatu behar da (4. irudia), eta telefonoa prest egongo da konexioa Bluetooth bidez partekatzeko.



3. irudia. "Androideko sarbidea-puntua". Geuk egina.



4. irudia. "Bluetooth ainguraketa Androiden". Geuk egina.



USB bidezko konexio mugikorra partekatzea

Konexio mugikorra partekatzeko beste aukera bat **USB bidezkoa** da, **kable bidezko tethering** izenez ere ezagutzen dena.

Bluetoothen kasuan gertatzen den bezala, **USB konexioak aplikazio ugari** ditu, hala nola gailuak kargatzea edo fitxategiak transferitzea. Besteak beste, konexio mugikorra partekatzeko aukera ematen du, hau da, telefono mugikorra beste gailu batera konektatzeko USB kablearen bidez. Horrela, **Internet konexioa zuzenean partekatzen da**.

Horregatik, kable bidezko *tethering*ak abantaila nagusi bat du: **abiadura handia eta egonkortasuna datuen transferentzian**. Gainera, USB bidezko konexio mugikorra partekatzeak **ez du telefono mugikorraren bateriarik kontsumitzen**, gailuak nahikoa energia ematen baitio telefonoari kable bidezko konexioa jasotzen duen bitartean. Hala eta guztiz ere, Bluetooth bidez konexio mugikorra partekatzean bezala, metodo honen bidez **gailu bakar bat konekta daiteke**.

Jarraian, konexio hori iOS eta Android gailuetan nola egin azaltzen da.

iOS

iOS telefono mugikorraren kasuan, Bluetooth bidez partekatzeko urrats berberak egin behar dira. iPhone ezarpenetan **"Sarbidet puntu pertsonala"** hautatu behar da dagokion panela irekitzeko (1. irudia). Panel horren barruan, beharrezkoa da **"Beste batzuei konektatzen uztea"** aukera aktibatzea (2. irudia).

Horren ondoren, **iPhonearen karga-kablea** erabili behar da konexioa partekatuko den gailuaren –normalki, ordenagailu baten– USB atakara konektatzeko. Kablea bateragarria ez bada, egokigailu bat beharko da.

OHARRA

iPhonean konexio mugikorra partekatzeko urratsak

Egin beharreko urratsak zehaztuta agertzen dira, "Beste batzuei konektatzeko baimena eman" aukera aktibatuta ondoren, "Sarbidet-puntu pertsonala" pantailaren behealdean.






Android

Android telefono mugikorren kasuan, USB bidezko konexio mugikorra partekatze lehen urratsa **kable horren bidez telefonoa beste gailu batera konektatzea** da. Konektatu ondoren, egin beharreko urratsak Bluetooth bidezko *tetheringean* egin beharrekoen oso antzekoak dira (3. irudia).

Lehenik eta behin, jakinarazpen-panela pantailaren goiko aldetik lerratu behar da, "**Sarbide-puntua**" ikonoa aurkitzeko eta **aktibatze**ko. Aurkitzean, ikono hori sakatuta eduki behar da "**Sarbide-puntu eramangarria**" panela irekitzeko.

Puntu horretan zertxobait aldatzen da prozesua, kasu honetan **aktibatu beharreko aukera "USB ainguraketa"** baita (5. irudia).



5. irudia. "USB ainguraketa Androiden". Geuk egina.

⚠ ADI

Mac ordenagailuen kasuan, ordenagailu horiek ezin dute Androidekiko konexioa partekatu USB bidez.

Androiden laguntza. **Androiden konexio mugikorrek partekatzea, sarbide-puntu baten bidez edota konexio-funtzio partekatuaren medioz.** e.digitall.org.es/conexion-android



i Informazio gehiago

Apple (d.g.). Nola pertsonalizatu sarbide-puntu pertsonala iPhone edo iPad-ean. <https://support.apple.com/es-es/111785>

Apple (d.g.). iPhonea eta ordenagailua kable baten bidez konektatzea. <https://support.apple.com/es-es/guide/iphone/iph42d9b3178/17.0/ios/17.0>


Geeknetic (2020ko abuztuaren 12a). Zer da tetheringa eta zertarako balio du? <https://www.geeknetic.es/Tethering/que-es-y-para-que-sirve>

Google (d.g.). Androiden konexio mugikorak partekatzea, sarbide-puntu baten bidez edota konexio-funtzio partekatuaren medioz. <https://support.google.com/android/answer/9059108>

Idi, V. (2019). *Bluetooth Technology and Applications*. [Lizentziaturako tesia, Metropolia University of Applied Sciences]. https://www.theseus.fi/bitstream/handle/10024/263515/Idi_Valentine.pdf?sequence=2&isAllowed=y

La Vanguardia (2023ko uztailaren 8a). Zer den tetheringa: datu mugikorak partekatzeko modu guztiak. <https://www.lavanguardia.com/andro4all/moviles/que-es-el-tethering-todas-las-formas-de-compartir-datos-moviles#index3>

We are social eta Meltwater (2024). Digital 2024. Global Overview Report. <https://wearesocial.com/es/blog/2024/01/digital-2024/>



Arazoak
kopontzea

B2 maila 5.1 Arazo teknikoak
kopontzea

Ahots-morroiekin sortutako arazoetarako konponbideak





Ahots-morroiekin sortutako arazoetarako konponbideak

Ahots-morroiak

Ahots-morroiek eskaintzen dituzten konponbideetako zenbaitzuk etxetresna elektrikoak pizteko eta itzaltzeko ekintzak planifikatu eta kontrolatzea edo gogorarazpenak igortzea dira. Aplikazio horiek finduz joan dira sortu zirenetik –60ko hamarkadaren hasieratik–, funts-funtsezko bihurtzeraino, gaur egun, pertsona askoren eguneroko bizitzan. Ildo horretan, ahots-morroiak etxeetan, gailu mugikorretan eta erabilera pertsonalerako ibilgailuetan egon ohi dira. Dokumentu honetan, morroi horiek erabiltzean sortzen diren **arazo nagusiak** eta halako oztopoetarako **konponbide posibleak** aztertuko dira.



GAILU DIGITAL OHIKOENAK

Bideo honetan, gailu digital ohikoenak (ordenagailua, tableta, telefono adimenduna, etab.) eta horien funtzio eta ezaugarri nagusiak (eramangarritasuna, nonahikotasuna, pertsonalizazioa, etab.) identifikatzen dira.

e.digital.org.es/A5C51B2V03

Definizioa eta funtsezko ezaugarriak

Erabiltzaileak **ahoz** transmititutako **aginduak ulertu eta betetzen** dituzten zerbitzuak dira ahots-morroiak. Askotan, erantzun horiek beste gailu edo sistema teknologiko batzuekin elkarreraginean aritzea dakarte (etxetresna elektrikoekin edo datu-baseekin, adibidez), eta, beraz, **konektagarritasuna da** morroi horien **lehen ezaugarri nagusia**.

⚠ ADI

Praktikan, **morroi birtual bat** ez da bozgorailu adimendun bat, baina bozgorailu adimendunek ahots bidezko morroi bat izan ohi dute.

Ohikoa da bi termino horiek nahastea; hala ere, bozgorailu adimendunak halako morroien forma bat baino ez dira, eta **gailu eramangarrietan, smartphoneetan eta tabletetan** ere egoten dira, besteak beste. Bestela esanda, bozgorailu horiek "adimendun" bihurtzen dituen "garuna" da ahots-morroia.

TechDispatch. e.digital.org.es/techdispatch



Bestalde, zerbitzu horiek emateko, ahots-morroiek **hainbat modulu edo elementu baliatzen dituzte**; horiei dagokienez, hauek dira nabarmentzekoak:

- 1| Soinuak hartzeko eta igortzeko **hardwarea**
- 2| **Ahozko** diskurtsoa automatikoki transkribatzeko eta prozesatzeko **softwarea**
- 3| **Datu-baseetarako** eta lotutako beste zerbitzu batzuetarako **sarbidea**
- 4| Hizkuntza sortzeko **programa informatikoak**

Ahots-morroien azken bereizgarrietako bat da **adimen artifizialean egindako azken aurrerapenetara jotzen dutela** funtzionalitateak ezartzeko. Orobat, adimen artifizialaren erabilera horren ondorioz, morroiek ezaugarri hauek dituzte:

- **Egokitzailak** dira; hots, **denbora errealean** erantzuten diete inguruneko aldaketei.
- **Ikasteko gaitasuna dute**, eta horri esker, etengabe hobetzeko aukera dute, **erabiltzaile** eta **datu-baseekiko** interakzioen bidez.



1. irudia. Morroi birtualen hornitzaile nagusien arteko konparazioa. Geuk egina.

Eskuragarri dauden **ahots-morro**i gehienek hiru ezaugarri horiek dituzte, baina **itxura eta funtzionaltasunak**, ordea, **hornitzaile** bakoitzaren arabekoak dira (1. irudia).



i Informazio gehiago

Nola ikasten dute makinek gizakiek bezala hitz egiten? (e.digitall.org.es/maquinas) The Conversation, 2020

Zer arrisku posible dituzte morroi adimendunek? (e.digitall.org.es/riesgos-asistentes) Zibersegurtasun Institutu Nazionala, 2018

Jende guztiak hitz egiten du morroi birtualez, baina nola baliatzen dituzte benetan erabiltzaileek? (e.digitall.org.es/asistente-virtual). Computer Interaction Conference, 2018.

Morroien erabilerak: arazoak eta konponbideak

Ahots-morroiek goitik behera aldatu dute bitarteko digitalekiko elkarreragina, baina ahots-morroien ezarpenak **erronkak dakartza**. **Konektibitatea** edo ahotsa **ezagutzeko zehaztasuna** dira erabiltzaileek izaten dituzten arazoetako zenbaitzuk. **Berrikuntza teknologikoa** funtsezkoa da halako oztopoak gainditzeko eta morroi birtualen ahalmena aprobetxatzeko. Jarraian, zehatz-mehatz aztertuko ditugu **erabilera-erronka nagusietako** batzuk, bai eta horiei aurre egiteko **garapenak eta estrategiak** ere.



INTERNET OF THINGS (IOT) USATZEKO ARAZO NAGUSIAK

Bideo honetan, IoT gailuak erabiltzeko erronka nagusiak erakusten dira, hala nola konektibitatearekin eta sarearen eskuragarritasunarekin lotutako arazoak. Horietako zenbaitzuetarako soluzioak ere proposatzen dira.

e.digitall.org.es/A5C51B2V05

Erronka nagusiak ahots-morroiak erabiltzean

Ahots-morroi bat erabiltzean, baliteke zailtasunak agertzea. Jarraian aztertuko ditugu zailtasunok.

Konektibitate-arazoak

Epigrafe honetan biltzen dira **morroiaren eta Wifi sarearen arteko konexioarekin** lotutako zailtasunak. Izan ere, konexio eskasak edo irismen desegokiak baliteke fidagarritasun gutxiko integrazioa eragitea eta funtzionalitatea etetea.





OHARRA

KONEXIO TXAR BATEN ONDORIOAK

Batzuetan, konektagarritasun txarra honelako mezuen bidez adierazten da: "**Saiatu berriro hemendik minutu batzuetara**". Horrek esan nahi du gailua Internetera konektatzen saiatzen ari dela baina sareak ez duela erantzuten edo denbora gehiegi ari dela ematen.

Nola konpondu Google Homeran arazorik ohikoenak.
(e.digitall.org.es/google-home). DigitalTrends ES, 2023.

Gailuak ez erantzutea

Edo bestela esanda, morroi birtualak **ez die deiei erantzuten, ez da aktibatzen, eta ez du seinalerik ematen** komandoa jaso duela. Horren arrazoi posibleetako bat da **soinua jasotzeko gailuren** batekin arazoak izatea, edo **konfigurazioarekin** edo **ingurunearekin** zerikusia duten arazoak egotea.

Ez du erabiltzaileak nahi duen erantzuna ematen

Berriz ere, arazo horren kausak askotarikoak dira: baliteke gailua erabiltzailearen ahotsa ezagutzeko **entrenatuta ez egotea**, informazio hori lortzeko aplikazioetarako edo datu-baseetarako **sarbiderik ez izatea** edo behar diren **eguneratzeak ez izatea** eskuragarri.

OHARRA

AHOTS-KOMANDOAK OK GOOGLE-RENTZAT

Batzuetan, **ezjakintasunaren** ondorioz, ahots-morroien erabiltzaileek mugatu egiten dituzte haien funtzionalitateak. Horregatik, ahots-**komando ugari dituzten gidaliburuk** daude morroietarako.

OK Google: 123 ahots-komando, Googleren morroia ahalik eta gehien iraitzeko. (e.digitall.org.es/123-comandos). Xataka, 2022.

Bateragarritasun-arazoak

Ahots-morroien erabiltzaileek aurre egin beharreko erronka nagusietako bat **gailu hori beste etxetresna elektriko txiki batzuekin konektatzean** gertatzen da. **Fabrikatzaileek protokolo desberdinak erabil ditzakete**, eta horrek oztopatu egiten du gailuen arteko komunikazioa.



Jakinarazpenen bolumena altuegia da

Ohikoa da ahots-morroietako **fabrika-ezarpenek** bereziki bolumen altua izatea **jakinarazpen espezifikoetarako**, hala nola alarma bat edo oroigarri bat. Hori eraginkorra bada ere erabiltzaileen arreta erakartzeko, baliteke beti ez egokitzea premia edo lehentasun pertsonaletara.

Ahots-morroiak erabiltzearekin lotutako arazoak konpontzea

Hainbat estrategia eta jardunbide egoki daude, arestian azaldutako arazoak konpontzea errazten dutenak (1. taula). Praktika espezifikoak erabiltzen ari den ahots-morroia ereduaren arabera badira ere, jarraian gomendio orokor batzuk jaso dira.

1 TAULA. AHOTS-MORROIAK ERABILTZEAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK, JATORRIA ETA KONPONBIDE POSIBLEAK

Arazoa	Jatorria	Erantzunak
Konektibitatea	<ul style="list-style-type: none"> Sare-kalitate eskasa Kokapen desegokia 	<ul style="list-style-type: none"> Internet eta DNS sistema konfiguratzea Wifi-sareen konfigurazioa Banda-zabalera mugatzea
Ez erantzutea	<ul style="list-style-type: none"> Jasotzeko gailuak Kokapen desegokia Errorea ahotsa ezagutzean 	<ul style="list-style-type: none"> Mikrofonoaren funtzionamendua, baimenak eta kokapena egiaztatzea gune lasai eta interferentziarik gabe batean
Erantzun desegokia	<ul style="list-style-type: none"> Entrenamendua falta zaio Ez du baimenik Eguneratu gabe egotea 	<ul style="list-style-type: none"> Ezarpenak egiaztatzea eta gailua entrenatzea erabiltzailearen ahotsa ezagutzeko
Bateragarritasuna	<ul style="list-style-type: none"> Hainbat protokolo 	<ul style="list-style-type: none"> Prebentzio-neurriak eta gailua eguneratzea
Bolumen altua	<ul style="list-style-type: none"> Fabrika-ezarpenak 	<ul style="list-style-type: none"> Soinu-ezarpenak aldatzea

Konektibitate-arazoetarako soluzioak

Konektagarritasunarekin lotutako gaiak konpontzeko, wifi-sarearen hiru alderdi berrikusi behar dira:

- Internet eta DNS konfiguratzea:** konexioak behar bezala funtzionatzen duen egiaztatzeko, **beste gailu batzuen medioz nabiga** daiteke (ordenagailu eramangarri baten edo tableta baten bidez, adibidez), **abiadura-testa** egin daiteke edo IP helbide bati **ping bat egin daki**ke.



- **Wifi sarea eta estaldura konfiguratzeko**, hainbat parametro kontuan hartuta, hala nola sarearen izena, zifratze mota, pasahitza edo kanala.
- **Banda-zabaleraren mugatzailea aktibatzea**; horrek banda-zabalera handiena kontsumitzen duten ekipoetara mugatzen du deskarga eta igoera; hala, gainerakoek abiadura dute.

Gailuak erantzunik ematen ez duenerako soluzioak

Arazo horiei erantzuteko, morroiaren hainbat elementu behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatu behar da:

1 | Gailuaren mikrofonoa; aktibatuta egon behar du. Ahots-morroi askok aukera ematen dute beren funtzionamendua aldi baterako desgaitzeko, erabiltzailearen pribatutasuna babesteko, baina aktibatu egin behar da gailuak informazioa jaso dezan.

2 | Informazioa jaso eta prozesatzeko behar diren baimenak. Mikrofonoarekin gertatzen den bezala, ezarpen edo doikuntza horiek askotan aldatu egin daitezke gailuak inguruneko informaziorik ez hartzeko eta, hala, pribatutasuna babesteko, baina ezarpen horiek gaituta egon behar dute morroiak behar bezala funtziona dezan.

3 | Leku lasai batean kokatu behar da, interferentzietatik urrun, hala nola mikrouhin-labeek, telebistek edo bestelako telekomunikazio-gailuek sortutakoetatik urruti.

Erantzun zuzenik ez dagoenerako konponbideak

Halako arazoak konpontzeko ekintzak bi kategoria handitan biltzen dira.

Alde batetik, **doikuntzek behar bezala gaituta egon behar dute.** Horri dagokionez, sistemak **lotutako posta-kontu bat izan eta dagozkion baimenak aktibatuta eduki behar ditu.** Hori bereziki garrantzitsua da baldin eta, adibidez, erabiltzaileak bere kontu pribaturen bati lotutako informazio pertsonala kontsultatu nahi badu aplikazio jakin batzuetan, hala nola Google Calendar-en (1. irudia) edo Spotifyn (2. irudia).



1. irudia. Google Calendar, *Xataka*tik aterea



Bestalde, gomendagarria da **ahots-morroia trebatzea maiz erabiltzen duten pertsonen ahotsak ezagut dezan**. Gailu horiek hizkuntzaren forma neutroa erreferentziatzen hartuta entrenatu dira, non ez dagoen ezein eskualde zehatzen azenturik, ezta dialekto-hitzik edo hitz arrunten berezko hitzik ere. Ahots-morroiek ez dute ezagutu ohi hizkera zehatzik. Haatik, eta adimen artifizialean oinarritutako tresnak direnez, **ingurunearekiko interakzioaren bidez ikasteko gaitasuna dute**.

Bateragarritasun-arazoaren konponbideak

Arazo horiek konpontzeko, **prebentzio-ikuspegia hartu behar da funtsean**. Ildo horretan, **eskuragarri dauden aukerak zehatz-mehatz ikertzea** eta elkarrekin konektatzeko diseinatutakoak hautatzea gomendatzen dute adituek. Bilaketa- eta kontraste-prozesu hori errazteko, funtsezkoa da gailuen arteko **bateragarritasun-baldintzak egiaztatzea**.

Konektatzeko zailtasunak dituzten bi gailu izanez gero, **firmwarea eta softwarea eguneratzea** gomendatzen da, askotan bateragarritasun-aukerak aldatu egiten baitira gailuen bertsioek aurrera egin ahala.

Jakinarazpenen bolumen handirako soluzioak

Hori da soluzio errazteneko arazoetako bat, gailuaren **soinu-ezarpenak** aldatzea nahikoa baita. Hori lortzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea ahots-morroiek **ezarpen desberdinak izaten dituztela soinu-kategoria bakoitzerako**: jakinarazpenak, multimedia-erreproduzigailua, alarmak, etab.



2. irudia. Spotify, [Wikipediatik](#) aterata.

i Informazio gehiago

Nola egin ping IP helbide batera? (e.digitall.org/es/ping) NordVPN, 2023.

“Oh, I’ve Heard That Before”: Modelling Own-Dialect Bias After Perceptual Learning by Weighting Training Data. (e.digitall.org/es/training-data)
Workshop on Cognitive Modeling and computational Linguistics, 2017.



i Informazio gehiago

Alcántara, B. (2022) "OK Google" ez dabil: zer egin Googleren morroiak arazoak sortzen baditu. *La Vanguardia*. 2024/02/21ean hartua: <https://www.lavanguardia.com/andro4all/google/ok-google-no-funciona-que-hacer-si-el-asistente-de-google-da-problemas>

De Luz, S. (2023) Zer egin bozgorailu adimenduna wifi-era konektatzen ez bada. *Redes Zone*. Hemendik hartua 2024/02/21ean: <https://www.redeszone.net/noticias/wifi/no-conecta-altavoz-alexa-google-wifi-solucion/>

Energy5 (2023) Etxetresna elektrikoetan ahots-morroia sartzean arazoak konpontzea. *Energy5*. 2024/02/21ean hartua: <https://energy5.com/es/solucion-de-problemas-de-integracion-del-asistente-de-voz-en-electrodomesticos>


European Data Protection Board (2021) *Guidelines 02/2021 on virtual voice assistants, Version 2.0*. Europar Batasuna.

Martínez, M. (2024) Arazoak Google Assistantekin eta nola konpondu. *Movil Zona*. 2024/02/21ean hartua: <https://www.movilzona.es/tutoriales/software/problemas-google-assistant/>

Plasencia, J. L. (2021) *Echo Dot arazo ohikoenak eta nola konpondu*. *Digitaltrends ES*. 2024/02/21ean hartua: <https://es.digitaltrends.com/inteligente/problemas-echo-dot/>

Rodríguez de Luis, E. (2023) *Duela ia bost urtez geroztik erabiltzen ditut ahots-morroiak etxean, eta Siri, Alexa eta Google Assistantekin desesperatzen jarraitzen dut*. *Xataka*. 2024/02/21ean hartua: <https://www.xatakahome.com/domotica/llevo-casi-cinco-anos-usando-asistentes-voz-casa-sigo-desesperandome-siri-alexa-google-assistant>

Zhou, Z. (2016) A Framework for Virtual Assistants: An exploratory study. *International Journal of Social Science and Business*, 1(4), 49-56




DigitAll

Arazoak
konpontzea

5.2

BEHAR ETA
ERANTZUN
TEKNOLOGIKOAK
IDENTIFIKATZEA





Arazoak
kopontzea

B2 maila 5.2 Behar eta erantzun
teknologikoak identifikatzea

Windows eta macOS sisteman erabilerraztasuna konfiguratzeko aukerak





Windowsen eta macOSen erabilerraztasuna konfiguratzeko aukerak

Interfazearen konfigurazioa

Erabilerraztasun digitala terminoa hainbat testuingurutan nabigagarriak eta erabilgarriak diren gune birtualak sortzera bideratutako jardunbide eta printzipio guztiak biltzeko "aterki" motako terminoa da. Jarraian, erabilerraztasun-konfigurazioak aztertzen dira sistema eragile nagusietako bitan: Windows eta macOS.



ERABILERRAZTASUNA KONFIGURATZEA SISTEMA ERAGILEAN


Bideo honetan, sistema eragile nagusietako (Windows, macOS, Android, iOS) erabilerraztasuna konfiguratzeko aukerak jorratzen dira.

e.digitall.org.es/A5C52B2V06

Erabilerraztasuna Windowsen

Erabilerraztasuna da Windows garatzeko bide nagusietako bat. Izan ere, sistema horrek **erabiltzaile-esperientzia inklusibo eta pertsonalizatua** eskaini nahi du, hainbat erabilerraztasun-aukeraren bidez.

Horri dagokionez, garrantzitsua da kontuan hartzea **aukera horietara sartzeko** ataza-barrako *Hasiera* botoian egin behar dela klik, eta horren ondoren, *Konfigurazioa* aukeran (1. irudia).




1. irudia. Windowseko konfigurazio-aukerak. Geuk egina.



Elementu bisualen erabilerraztasuna

Testuaren tamaina aplikazioetan eta gailuaren **beste elementu batzuetan** *Testuaren tamaina* aukeraren bidez doitu daiteke, *Erabilerraztasuna* atalaren barruan (2. irudia). Pantaila horretan honako hauek daude:

- **Puntu lerragarri bat** duen barra bat, testuaren tamaina aldatzeko, kontuan hartuta tamaina hori handitu egingo dela **puntua eskuinerantz arrastatuz**.
- **Adibide gisako testu** bat, non aplikatutako aldaketak islatu egingo diren.



2. irudia. Testuaren tamainarako doikuntzak. Geuk egina.

OHARRA

ERAKUSLEAREN ERABILERRAZTASUNA


Erakuslearen erabilerraztasun-konfigurazioa lagungarria da pantailaren barnean seinalatzen ari den puntua identifikatzeko. Identifikazio hori errazteko, saguaren tamaina, kolorea eta kontrastea alda daitezke. Gainera, arrasto bat gehitu daiteke, pantailan erakuslea nondik mugitzen ari den ikusten laguntzeko, Windows konfiguratzeaz gain pantaila ukitzean iruzkin bisualak ager daitezen.

Windows duen ordenagailu baten erabilerraztasuna hobetzen du, erakuslearen konfigurazioa egokituz. (e.digitall.org.es/accesibilidad)
Xataka, 2020.



Windowsen erabiltzaileek konparatu dezaketen elementu bisualetako beste bat **kontrastea** da, **edukiaren irakurgarritasuna hobetzeko**. Horretarako, *Erabilerraztasuna* aukeran klik egin behar da *Kontraste-gaiak* aukeran (3. irudia). Erlaitz berri horretan honako hauek ikusten dira:


- Kontraste-**aukera guztien aurrebista**.
- **Menu zabalgarri** bat, aukera egokiena **hautatzeko**.



3. irudia. Kontraste-gaien doikuntzak. Geuk egina.

Alerten ezarpenak

Alertak posta elektronikoaren, Microsoft Teamsen eta beste **hainbat aplikazioen jakinarazpenak** dira, gailuak erabiltzaileari erakusten dizkionak. Orokorki, alerta horiek **entzumenez** aurkezten dira, baina **bisualki aurkez daitez**en konfigura daiteke gailua. Horretarako, *Erabilerraztasuna* ataletik, *Audioa* klikatu eta nahi den aukera hautatuko da *Nire pantailak dir-dir egitea jakinarazpenetan* menu zabalgarrian (4. irudia).



4. irudia. Jakinarazpenen aurkezpen bisualerako doikuntza edo ezarpenak. Geuk egina.

Erabilerraztasun kognitiboa

Informazioaren prozesamenduaren ikuspegitik, gailu eta tresna teknologikoak erabiltzeak askotan **karga mental handia eragiten dio erabiltzaileari**. Eskaera horiek murrizte aldera, **erabilerraztasun kognitiboko hainbat konfigurazio** garatu dira.



5. irudia. F9 teklaren kokapena. Geuk egina.



Adibidez, *Microsoft Edge*ko irakurle murgiltzaileak **irakurketa** errazten du, **web-orrien diseinuak sinplifikatzen eta desordena ezabatzen baitu**. Hala sartzeko, sakatu F9, besterik gabe (5. irudia). Irakurlea uzteko, prozedura berari jarraitu behar zaio.

Irakurle murgiltzailea aktibatu ondoren, irakurketa-esperientzia pertsonalizatzen jarrai dezakegu, besteak beste, testuaren tamaina edo orrialdeko gaiak aldatuz (6. irudia).



6. irudia. Irakurle murgiltzailea pertsonalizatzeko aukerak. Geuk egina.

i Informazio gehiago

Erabilerraztasunari buruzko laguntza eta prestakuntza (e.digitall.org.es/accesibilidad-edge) Microsoft, d.g.

Microsoft 365i buruzko ikaskuntza (e.digitall.org.es/365-training) Microsoft, d.g.

Narratzaileari buruzko gidaliburua (e.digitall.org.es/guia-narrador) Microsoft, d.g.

Erabilerraztasuna macOSen

MacOSen, erabilerraztasun-funtzioak erabiltzaileei **ikusmen-, entzumen- eta mugimendu-premiekin** laguntzeko garatu ziren, besteak beste. Funtzio horien konfigurazioa *Erabilerraztasun-doikuntzen paneletik gauzatzen da*, Sistemaren ezarpenak atalean (7. irudia).



7. irudia: Erabilerraztasun-aukerak macOSen. Geuk egina.

Ikusmenerako erabilerraztasuna

Konfigurazio-aukera horiei esker, **erabiltzaileak errazago ikus dezake edukia.**

⚠ ADI

VOICEOVER

VoiceOver Mac-en integratutako pantaila-irakurgailua da. Tresna horrek ozen irakurtzen ditu pantailako edukia eta dokumentuen, webguneen eta leihoen testua. Gainera, teklatuaren bidez eta *trackpad*aren keinuen bidez gailua kontrolatzeko aukera ematen du edo, bestela, braille pantaila bateragarri bat konektatzeko aukera.

VoiceOver erabiltzeko eskuliburua (e.digitall.org.es/voiceover) Apple, d.g.

MacOSen ikus-erabilerraztasunaren funtzio ezagunenetako bat zooma da, erabiltzaileari **pantailako edukiaren tamaina handitzeko aukera** ematen diona. Zooma aktibatzeke, *Erabilerraztasuna* aukeratik zoom aukera hautatu behar da (8. irudia). Pantaila berri horretan, honako hauek egin ahalko dira:

1 | Funtziorako sarbide azkarra aktibatzea.

2 | Konfiguratu *Desplazamendu-keinua teklekin*

erabiltzea zooma aldatzeko aukera. Horri esker, erabiltzaileak elementuen tamaina handitu edo txikitu dezake, hautatutako tekla sakatuta izanik eta saguarekin mugituta.



3 | Zoom-eremuaren estiloa, tamaina eta kokapena aldatu; beraz, erabiltzaileak hurbildu edo urrundu nahi duen pantaila kantitatea pertsonaliza dezake, baita zoom-eremua non agertzen den ere.



8. irudia. Zoomaren konfigurazio-ezarpenak. Geuk egina.

Zoomarekin estuki lotuta, *Testu flotatzailea* funtzioak **erakuslearen azpian dagoenaren bertsio handitua** ikusteko aukera ematen du.



9. irudia. Testu flotatzailea konfiguratzeko ezarpenak. Geuk egina.



Aktibatzeke, zoom-leihoaren barruan, nahikoa da aukeraren ezkeralderako laukitxoa markatzea. Gainera, **hainbat pertsonalizazio-aukera** ditu, hala nola erabiltzaileak idazten duen bitartean aktibatzeke aukera (9. irudia).

Entzumenerako erabilerraztasuna

Azpitutuluak kategoria honetako erabilerraztasun-aukeretako bat dira. Pertsonalizazio-doikuntzen barruan, *Erabilerraztasuna* fitxan, *Entzumena* epigrafean (10. irudia), honako eragiketa hauek egin daitezke, besteak beste:


- Aukerako eta gorrentzako azpitutuluak **aktibatzea eta desaktibatzea**.
- Azpitutulu-estilo bat **sortzea, ezabatzea eta aldatzea**, atzealdearekin eta testuarekin lotutako aukerak ezarrita. Erabiltzaileak sortutako estiloa beti erabiltzeko, *Bideoari uko egitea baimentzeko* aukera desmarkatu behar du erabiltzaileak.

OHARRA

TESTU-DEIAK DENBORA ERREALEAN (RTT)

MacOS duten gailuek aukera ematen dute ahotsa eta testu idatzia konbinatzeko telefono-deietan; RTT esaten zaio horri. Funtzio hau bereziki erabilgarria da entzuteko edo hitz egiteko arazoak dituzten pertsonentzat.

Mac-en erabilerraztasunerako RTT ezarpenak aldatzea (e.digitall.org.es/rtt) Apple, d.g.



10. irudia. Ahots bidezko kontrola konfiguratzeko ezarpenak. Geuk egina.

Informazio gehiago

Lehen urratsak erabilerraztasun-funtzioekin Mac-en (e.digitall.org.es/accesibilidad-mac) Apple, d.g.

MacOSen erabilerraztasun-funtzioak ikusmenerako (e.digitall.org.es/mac-os-vision) Apple, d.g.

Ezabilerraztasun-funtzio errazak (e.digitall.org.es/accesibilidad-apple) Apple, d.g.

**i Informazio gehiago**

Apple (d.g.) Mac-en pantailan dagoena hurbildu eta urruntzea.

2024/03/07an hartua: <https://support.apple.com/es-es/guide/mac-help/mchl779716b8/14.0/mac/14.0>

Apple (d.g.) Mac-en testu flotatzailea erabiltzea. 2024/03/07an hartua:

<https://support.apple.com/es-es/guide/mac-help/mchl203bc78/14.0/mac/14.0>

Apple (d.g.) Azpitoluak eta aukerako azpitoluak erabiltzea Mac-en.

2024/03/07an hartua: <https://support.apple.com/es-es/guide/mac-help/mchl1c1cb8d54/14.0/mac/14.0>

Apple (d.g.): Mac-eko ahots bidezko kontrol-funtzioaren hastapenak.

2024/03/07an hartua: <https://support.apple.com/es-es/guide/mac-help/mchl1a04f324/14.0/mac/14.0>

Cabañero, L., Hervás, R., González, I., Fontecha, J., Mondéjar, T. eta Bravo, J.

(2019) Analysis of cognitive load using EEG when interacting with mobile devices. *Proceedings*, 3(1), 70. <https://doi.org/10.3390/proceedings2019031070>

Microsoft (d.g.) Windowseko entzutea erraztea. 2024/03/07an hartua:

<https://support.microsoft.com/es-es/windows/facilitar-la-escucha-de-windows-9c18cfdc-63be-2d47-0f4f-5b00facfd2e1>

Microsoft (d.g.) Orain errazago ikusten da Windows. 2024/03/07an


hartua: <https://support.microsoft.com/es-es/windows/windows-es-ahoram%C3%A1s-f%C3%A1cil-de-ver-c97c2b0d-cadb-93f0-5fd1-59ccfe19345d>

Microsoft (d.g.) Lupa erabiltzea pantailako bistaratzea errazagoa izan

dadin. 2024/03/07an hartua: <https://support.microsoft.com/es-es/windows/emple-la-lupa-para-facilitar-la-visualizaci%C3%B3n-en-la-pantalla-414948ba-8b1c-d3bd-8615-0e5e32204198>

Microsoft (d.g.) Microsoft Edgen irakurle murgiltzailea baliatzea.

2024/03/07an hartua: <https://support.microsoft.com/es-es/topic/usar-lector-inmersivo-en-microsoft-edge-78a7a17d-52e1-47ee-b0ac-eff8539015e1>



Arazoak
kopontzea

B2 maila 5.2 Behar eta erantzun
teknologikoak identifikatzea

Androiden eta iOSen erabilerraztasuna konfiguratzeko aukerak





Androiden eta iOSen erabilerraztasuna konfiguratzeko aukerak

Erabilerraztasuna gailu mugikorretan

Gaur egun, **erabilerraztasuna** funtsezko elementua da informazioaren gizartean. Beraz, **gehien baloratutako kalitate-ezaugarrietako bat da** nolabait.

Egoera hori **sektore teknologikoan ere aplika daiteke**, inklusio-joera berriek **aurrerapen teknologikoak desgaitasunen bat duten pertsonen hurbiltzeko modu berriak** bilatzera behartu baitute.

Ilido horretan, bilaketa hori **teknologia mugikorretara** ere iritsi da. Erabilera masifikatu denez gero eta kontuan izanik eskaintza handia dagoela gaur egun, gailu mugikorrek **funtsezko tresna** bihurtu dira pertsonen egunerokotasunean. Gainera, erabilerraztasunaren alorrean, **erabilerraztasuna eta inklusio teknologikoa faboratzen duten zenbait zerbitzu** gauzatzea lortu dute.


OHARRA

EZJAKINTASUNA

Aurrerapenak egin badira ere, pertsona askok ez dituzte ziurtasunez ezagutzen gailu mugikorrek erabilerraztasunaren esparruan eskaintzen dituzten ezaugarriak edo funtzionaltasunak eta, honenbestez, erabiltzailearen premietarako guztiz egokiak ez diren aukerak hautatzen dituzte. Egoera horrek zaildu egiten du ezaugarri horiek guztiak aprobetxatzea, bai eta desgaitasuna duten pertsonak informazioaren gizartearen mekanikan integratzea ere.

Redalyc. Android, iOS eta Windows Phone sistemetarako erabilerraztasunaren konparaziozko ebaluazioa. e.digitall.org.es/redalyc

Horregatik guztiagatik, erabilerraztasunaren esparruan gailu mugikorretan gehien erabiltzen diren bi sistema eragileek (Android eta iOS) eskaintzen dituzten funtzioak aztertuko ditugu dokumentu honetan. Halaber, funtzio horietako bakoitza aktibatzeke jarraitu beharreko prozesua xehatuko da.



ERABILERRAZTASUNAREN EZARPEN SISTEMA ERAGILEAN.

Oro har, erabilerraztasuna konfiguratzeko aukerak aipatzen dira sistema eragile nagusietan (Windows, macOS, Android, iOS), urrats guztietan sakondu gabe.

e.digitall.org.es/A5C52B2V06




Androiden erabilerraztasuna konfiguratzea

We are social eta *Meltwater* ekimenek 2024an gauzatutako azterlan baten arabera, **Android** da **munduan gehien erabiltzen den** sistema eragilea, munduan erabiltzen diren gailu mugikorren % 70 baino gehixeagok sistema horrekin funtzionatzen baitu.

Erabilerraztasunari dagokionez, Android oso sistema eragile ona da, eta **hainbat funtzio** eskaintzen ditu desgaituek informazioa errazago eskuratu dezaten. Hona hemen funtzio horien xehetasunak:

Alabaina, funtzio horietan sakondu aurretik, Android gailu batean erabilerraztasuna konfiguratzeko jarraitu beharreko prozesua zehaztu behar da ezinbestean (1. irudia). Lehenik eta behin, **gailuaren ezarpenetara** sartu behar da, eta, hortik, **"Ezarpen osagarriak"** aukera bilatu. Atal horren barruan, **"Erabilerraztasuna"** aukera aurkitu beharko da.



1. irudia. "Androiden erabilerraztasuna konfiguratzeko". Geuk egina.

Erabilerraztasun-pantailara iristean, doikuntzak lau kategoria zehatzetan banatzen dira: **orokorra, ikusmena, entzumena eta fisikoa**.




Orokorra

"**Orokorra**" atala berez irekitzen da erabilerraztasun-aukeretan sartzean, eta hiru aukera ditu (2. irudia).

"**Pantaila blokeatuko lasterbidea**" aukeran, zuzeneko sarbide bat aktibatzen da bolumen-botoien bidez, blokeo-pantailatik **Talkbacka aktibatzeko**.

"**Erabilerraztasun-menua**" aukeraren bidez, pantaila batera sartuko gara, eta menu horretarako **zuzeneko sarbidea aktibatu** ahalko dugu bertan, telefonoaren pantailaren behealdean agertuko den botoiaren bidez.


Azkenik, "**Deskargatutako aplikazioak**" aukerak telefonoan deskargatu diren **erabilerraztasunarekin lotutako aplikazioak** erakusten ditu.



2. irudia. "Erabilerraztasun orokorra Androiden". Geuk egina.


Ikusmena

"**Ikusmena**" atalak hiru azpiatal ditu: "**pantaila-irakurgailuak**", "**pantaila**" eta "**esperimentalak**".



3. irudia. "Pantaila-irakurgailuak". Geuk egina.

4. irudia. "Pantaila". Geuk egina.



5. irudia. "Esperimentalak". Geuk egina.

Pantaila-irakurgailuen atalean, "**Talkback**" aukera eskaintzen da. Aukera horretatik, **funtzio hori aktibatu, zuzeneko sarbide bat aktibatu** eta hainbat **ezarpenetan** sartzeko aukera dago. Gainera, atal horretatik "**Hautatu ozen irakurtzeko**" ere hauta daiteke hautatutako testua entzuteko, edo "**Testua hizketara outputa**" aukera aktibatu (3. irudia).

"**Pantaila**" ataletik (4. irudia) pantailaren inguruko alderdiak alda daitezke, hala nola "**bistaratzeko tamaina**" (zooma), "**lupa**", "**kolore-zuzenketa**", "**koloreen alderantzikatzea**" edo "**kendu animazioak**".



Azkenik, "**Esperimentala**" ataletik (5. irudia) "**Kontraste handiko testua**" aktiba daiteke, bai eta "**Bozgorailua automatikoki aldatu**" aukera ere deietan mugikorra belarritik urruntzen denean, nahiz eta azken horrek Talkback aktibo dagoenean bakarrik funtzionatzen duen.

Entzumena

"**Entzumena**" ataletik, eskaintzen diren aukerak txikixeagoak dira (6. irudia). Alde batetik, "**Audio monofonikoa**" aukera aktiba daiteke eta **kanalak konbinatu audioa erreproduzitzean**, baita erabiltzailearen premietarako egokiena den **audioaren oreka aukeratu** ere. Bestalde, "**Azpitutulu-hobespenak**" aukeran **azpituduluen sorrera aktiba daiteke**, baita **tamaina, estiloa, hizkuntza** eta halako doikuntzak aukeratu ere.

Fisikoa

Azkenik, "**Fisikoa**" atalak erabilerraztasun-ezarpenak eskaintzen ditu **mugimendu-arazoren bat duten pertsonentzat** (7. irudia).

Alde batetik, "**Interakzio-kontrolak**" atalaren bidez, zenbait alderdi alda daitezke, hala nola **atzeratzea, sakatuta mantentzean**, edo **ekintza-denbora**; horrez gain, aukera hauek ere aktiba daitezke: **pizte-botoiarekin esekitzea, pantaila automatikoki biratzea**, edo **ukipen-erantzunaren eta bibrazioaren intentsitatea**.


Bestalde, "**Sartzeko gailua**" atalak aukera ematen du pantailan zehar mugitzeko **kanpoko gailuak** –hala nola sagua– **konektatzeko** aukerak aktibatzeke.

Horrez gain, beste ezarpen batzuetarako sarbide zuzena ere eskaintzen du "**Teklatua, sagua eta touchpada**" botoiaren bidez.


Erabilerraztasunaren konfigurazioa iOSen

iOS sistema eragilea munduan **gehien erabiltzen direnetako bigarrena** da, baina mundu osoan erabiltzen diren gailu mugikorren % 30 baino gutxiago iOSekoak dira.

Androidek bezala, hainbat ezarpen eta funtzionalitate eskaintzen ditu gailu mugikorra konfiguratzeko, erabiltzaile bakoitzaren erabilerraztasun-beharrei erantzunez.




6. irudia. "Entzumen-ezarpenak Androiden". Geuk egina.



7. irudia. "Ezarpen fisikoak Androiden". Geuk egina.



Kasu honetan, doikuntza horietara sartzeko, lehenik eta behin "Ezarpenak" aplikazioa bilatu behar da telefonoan. Hemen gaudela, "Erabilerraztasuna" atala bilatu behar dugu (8. irudia).



8. irudia. "iOSen erabilerraztasuna konfiguratzeko". Geuk egina.

"Erabilerraztasuna" pantailatik hainbat ataletan sar gaitzeko, erabilerraztasun-ezarpenak aldatzeko kategorija jakin batzuetan oinarrituta: **ikusmena, trebetasun fisikoak eta motorrak, entzumena, ahotsa eta orokorra.**

Ikuspegia

"Ikusmena" ataletik hainbat aldaketa egin daitezke konfigurazioan, ikusmen-zailtasunen bat duten pertsonen sarbidea errazteko (9. irudia).

Lehenik eta behin, "VoiceOver" aktiba daiteke, **Keinuetan oinarritutako pantaila-irakurgailu bat**, baina beste aukera batzuk ere aktiba daitezke, hala nola **irakurritako edukia** edo **audiodeskribapena**.

Horrez gain, atal honetan pantailaren zenbait alderdi alda ditzakegu: **zoma, pantaila** (batez ere, pantailaren koloreak aldatzeko doikuntzak eginda), **testuaren tamaina**, edo telefonoaren **pantailaren mugimendu bisuala** (trantsizioak, animazioak, irudi animatuak, etab.).



9. irudia. "iOSen ikusmen-ezarpenak". Geuk egina.



Trebetasun fisikoak eta motorrak

Atal honetan aukera asko eskaintzen dira (10. irudia):

- **Ukitzea:** botoi honen bidez, Assistive Touch aktiba daiteke. Tresna horrek iPhone erabiltzen laguntzen du pantaila erabiltzeko zailtasunak dituztenentzat edo egokitzapen-osagarriak behar dituztenentzat.
- **Face ID eta arreta: segurtasun-maila handiagoa** bermatzen duen aukera bat da; izan ere, erabiltzailea aurpegiz ezagutzeaz gain, pantailari begira dagoela baieztatzen du jakinarazpenak erakustean edo transakzio bat egitean.
- **Botoi bidezko kontrola:** funtzio honek modu sekuentzialean nabarmentzen ditu pantailako **itemak, egokitzapen-osagarrien bidez aktibatu ahal izateko.**
- **Ahots bidezko kontrola:** telefona ahotsaren bidez erabiltzeko aukera ematen du.
- **Alboko botoia:** alboko botoiak Siri aktibatzeke, ordaintzeko eta **antzeko ekintzak egiteko** behar dituen **pultsazioen kopurua doitu** daiteke.
- **Hurbileko gailuak kontrolatzea: iCloud kontu bera erabiltzen duten** gailuekin egiten da hori.
- **Apple tv aplikazioaren agintea:** aukera honetatik sistema hori duen telebista bat maneia daiteke.
- **Teklatuak: kanpoko teklatuak konektatzeko** aukera ematen du atal horrek.
- **Airpodak:** hemendik doitu daitezke gauzatu beharreko ekintzak, entzungailuan egiten diren pultsazioen arabera: bolumena jaitsi edo igo, zarata ezeztatu, etab.

Entzumena

Entzumenarekin lotutako erabilerraztasun-doikuntzetarako ere hainbat aukera ematen dira:



10. irudia. "Trebetasun fisiko eta motorren ezarpenak iOSen". Geuk egina.



- **Audifonoak:** aukera honen bidez **audifonoak konekta** daitezke, bai eta **bateragarritasun**-aukera aktibatu ere, soinuak kalitate handiagoa izan dezan.
- **Entzumena kontrolatzeko zentroa:** kontrol-zentroan **zuzeneko sarbidea** sortzeko aukera ematen du **zenbait funtziotarako**, hala nola entzungailuen ezarpenetarako, inguru-zarataren aktibaziorako, etab.
- **Soinuak ezagutzea:** aukera horrek gailuaren adimena erabiltzen du **erabiltzaileari abisatzeko aurretiaz hautatutako soinuetako baten bat detektatzen duenean** (alarmak, txirrinak, haurtxoen soinuak, etab.).
- **TTY: teletipo birtualari** egiten dio erreferentzia, eta entzumen- edo hizketa-zailtasunak dituen erabiltzaileari aukera ematen dio dei bidez komunikatzeko, **telefono-linea baten bidez testuak bidaliz**.
- **Audioa eta efektu bisualak:** aukera honetatik, hainbat alderdi alda daitezke, hala nola entzungailuak edo audioa, inguru-soinuak ezartzea, audio monofonikoaren edo estereoaren artean aukeratzea, ezkerreko kanalaren eta eskuineko kanalaren arteko audio-oreka aldatzea, etab.
- **Azpituluak:** aukera egokia da **azpitoluak aktibatu, estiloa aldatu** edo **audio-transkripzioak aktibatu** nahi badira.



11. irudia. "Entzumen-ezarpenak iOSen". Geuk egina.

Ahotsa

Atal honetan bi ezarpen mota baino ez daude (12. irudia). Alde batetik, "**Ahotsa denbora errealean**" atalak aukera ematen dio erabiltzaileari bere hitzak idazteko eta, horren ondoren, telefono-deietan, Facetimen eta abarretan **entzuteko**.

Bestalde, "**Ahots pertsonala**" erabiliz, ahots-arazoak dituen erabiltzaile batek **bera bezalako ahots bat sortu** dezake, beste aplikazio edo dei batzuetan testua irakurtzean erabiltzeko.



12. irudia. "iOS ahots-ezarpenak". Geuk egina.



Orokorra

Azken atal honetan aukera orokorragoak eskaintzen dira, hau da, ezin desgaitasun motarekin lotura zehatzik ez dutenak (13. irudia). Hortik, **sarbidet gidatua** eta **sarbidet lagundua** hauta daitezke, aukera pertsonalizatu bidez **nabigatzea errazteko** eta interfazea sinplifikatzeko, bai eta alboko botoia konfiguratu ere, **"Funtzio bizkorra"** atalaren bidez hiru aldiz sakatzean hainbat ekintza egin ditzan.

Horrez gain, atal honetan Siri aktibatu eta konfiguratu ere egin daiteke.

Azkenik, "Orokorra" atalak **aplikazioen araberako ezarpenetara** sartzeko aukera ematen du, nahi diren aplikazioak gehitzeko eta **horien parametro batzuk aldatzeko**, hala nola testuaren tamaina edo kontrastea.



13. irudia. "Erabilerraztasun-ezarpen orokorrak iOSen". Geuk egina.

Informazio gehiago

iOS eta Androiden erabilerraztasun-doikuntzei edo horien erabilera-estatistikei buruzko informazio gehiago lortzeko, honako esteka hauek kontsultatu daitezke:

- **Redalyc. Erabilerraztasunaren konparaziozko ebaluazioa Android, iOS eta Windows Phone sistematarako** (e.digitall.org.es/redalyc). Morales, Y. E., Gómez, J. D. eta Camargo, J. J., 2016.
- **Digital 2024 - We Are Social Spain** (e.digitall.org.es/digital2024). We are social eta Meltwater, 2024.






i Informazio gehiago

Morales, Y. E., Gómez, J. D. eta Camargo, J. J. (2016). Android, iOS eta Windows Phone sistemetarako erabilerraztasunaren konparaziozko ebaluazioa. *Revista Virtual Universidad Católica del Norte*, (48), 295-315.
<https://www.redalyc.org/pdf/1942/194245902018.pdf>

We are social eta Meltwater (2024). *Digital 2024. Global Overview Report*.
<https://wearesocial.com/es/blog/2024/01/digital-2024/>




DigitAll

Arazoak
konpontzea

5.3

